

Izerdiari izerdiarekin



Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

Uhaga edo ponpa izugarriak dira landareak. Zuhaitz handiak, zer esanik ez. Metro eta erdiko gerribuelta duen pago (*Fagus sylvatica*) batek egunero 400 litro ur behar ditu metabolismoari eusteko. 400 litro ur aurkitu behar ditu non edo han; sustrai-je ikaragarria garatzen du ur hori aurkitzeko eta enborrera ekartzeko. 400 litro ur horiek hostoetara ponpatu behar ditu ondoren. A ze makinatzarra! Lehengoan nioen nola sasoi berriari hasiera emateko, hostaia hedatu aurretik, ponpatzen duen lehen izerdi gordina kentzen zaion urkiari (*Betula spp.*). Baba (*Vicia faba*) eta ilar (*Pisum sativum*) berriak omen dira, gero, gutziak, zer ote da, orduan, urki izerdia?

Ez zaio urkiari bakarrik kentzen izerdi berri hori. Kanadan eta Ameriketako Estatu Batuetan azukrearen astigarra (*Acer saccharum*) jezten da, eta Kanariar Uharreetan, bertako palmondoa (*Phoenix canariensis*), "guarapoa" edo "palmondo ezitia" deitzen duten edaria egiteko. Txilen, berriz, beste palmondo bati kentzen diote izerdia, kanpotarrek "Txileko palmondoa" eta bertakoek "eztiaren palmondoa" deitzen dutenari, *Jubaea chilensis*. Datil palmondoaren (*Phoenix dactylifera*), kokondoaren (*Cocos nucifera*) eta Palmyrako palmondoaren (*Borassus spp.*) izerdiak ederki baliatzen dituzte Afrika eta Asia tropikaletan: "tuba" egiten dute Filipinetan, "tuak" Indonesian



VILLIMAKA FOLIAKI

Palmondoen izerdiak ederki baliatzen dituzte Asia eta Afrika tropikaletan edariak sortzeko.

eta Malaysian, "kallu" Indian, "addu bondia" Maldibetan eta "karewea" eta "kama-maia" Kiribatin, "matango" Kamerunen, "oguro" Nigerian, "poyo" Sierra Leonan, "nsamba" Kongon, "manjenvo" Angolan, "nsafufou" Ghanan, "htan yay" Myanmarren, "mnazi" Kenian, "bahar" Borneon...

Eta abar. Gure buruan kabitzen ez den mundu izugarri bat da zuhaitzen izerdiarena. Ur azukreduna denez, beretik sorkin ugari egiteko lehengai da. Irakin eta irakin eginez azukrea bera lortzeko.

Bere horretan irakiten edo hartitzen utzita azukrea alkohol bihurtuko da, eta, hala, izerdiaren ardoa sortuko da. Irakite hori osatu aurretik tartean moztu edo geraraziz gero pitar modukoa izango da. Irakinaldia eten ezean, ozpina.

Tropikoetan, lama batean bizi izanda, izerdi patsa eragozteko, landareen izerdiaren eratorri horietako edozein da ona; han ere, noski, gustatu egin behar... Zenbait tokitan ezkontza ospakizunetako edari estimatuena da. n



endanea
garden

943 64 17 10
www.endanea.com
Jaitzubia 40, Hondarribia

Zure uztako barazkiak

Etxeko baratze edo hiri baratzean barazki zapoetsuak hazteko, material, produktu eta landare ekologiko guztiak.






